

TERMOMETROA

POBREZIA ENERGETIKOA

130.000 lagun hotzak daude etxean

Nafarroako etxebizitzan %5ek eta EAeko %4k ezin dute tenperatura egokia mantendu.

| UNAI BREA |

2012KO DATUAK eman ditu Espainiako Asociación de Ciencias Ambientales (ACA) elkarteak. Etxeko energia gastuetarako diru-sarreraren %10 baino gehiago erabili behar duen etxebizitzaren portzentajea %19koa zen Nafarroan (96.000 pertsona), eta %8koa EAEn (150.000 pertsona). Nafarroan, ehuneko hori biziki handitu da azken urteetan (2007an %9 ingurukoa zen), eta motelago EAEn (%5ekoa zen 2006an).

Aipatutako urtean beti ere, Nafarroako etxebizitzan %5ek ezin zuten tenperatura egokia mantendu (44.000 pertsona). EAEn, portzentaje hori %4koa zen (87.000 pertsona).

Arlo horretan ere bilakabidea okerragoa izan da Nafarroan (2004an ia %0 zegoen egoera horretan). EAEn, aldiz, kopuruak berdin antzean mantendu dira denbora tarte berean.

Zer irizpide erabiltzen da?

Beste azterketa batzuen ildo beretik, ACAk %10eko gastua ezarri du pobrezia energetikoaren mugarri. Irizpide horri kritikarik ez zaio falta, dirudunek portzentaje handiagoa gastatu baitezakete buruhauste handirik gabe; nolana, gaia aztertzen dutenek ontzat ematen dute irizpidea.

Etxetik kanpoko energi gastuak, garraioari lotuak esaterako, ez dira

kontuan hartzen pobrezia energetikoa definitzeko orduan. Areago, etxe barrukoetan ere hierarkiak daudela esan genezake, ACAk berak –hierarkia hitza erabili gabe, noski– azpimarratzen duenez: nagusiki etxea bero ezin mantentzeari esaten zaio pobrezia energetikoa, baina kontuan hartu behar dira, halaber, argizatzea, elektrotresnak, ur beroa, elikagaien presakuntza eta beste.

Pobrezia energetikoa, modako kontzeptua. Laburtze aldera, pobrezia ere deitu ahal-ko genioke. ■



Kalean da apirileko



aizun!

- Lurdes Oiarzabal arin-arin
- San Juan baleontzia berreraikitzen
- Gamazada gogoan
- Ogerleko, Aiaraldeko diru osagarria
- Erraketistak ez ahazteko

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €

aizunet.org